



BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA LEMOIZKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, UDAL-HONDAKINAK TRATATZEKO ZERBITZUA EMATEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE LEMOIZ PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE TRATAMIENTO DE RESIDUOS MUNICIPALES.

BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, **BIZKAIKO FORU ALDUNDIA**, Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko foru-diputatu **ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA** andreak ordezkaturik, 2024ko uztailaren 11ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez ahaldundua.

De una parte, la Excm. **DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**, representada por D^a. **ARANTZAZU ATUCHA LEJARRETA**, en calidad de Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura, facultada mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno de 11 de julio de 2024.

Eta, bestetik, **JESÚS MARÍA ARIZMENDI BASTARRIKA** jauna, **LEMOIZKO UDALEKO** alkatea, zeinak hitzarmen hau sinatzeko ahalmena baitu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ematen dizkion eskumenetan oinarrituta.

Y, de otra parte, D. **JESÚS MARÍA ARIZMENDI BASTARRIKA** en su calidad de alcalde del **AYUNTAMIENTO DE LEMOIZ** facultado para la firma del presente convenio en base a las atribuciones conferidas por la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local.

Alde biak, euren eskumenengatik eta elkarri hitzarmen hau sinatzeko ahalmenak eta gaitasunak aitortuz.

Dichas partes, en razón de sus respectivas competencias y reconociéndose poderes y facultades para formalizar el presente convenio.

ADIERAZI DUTE

EXPONEN

LEHENA.- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2022ko apirilaren 6ko 2022/591 (EB) Erabakiak, Batasunaren 2030era arteko Ingurumenaren arloko Ekintza Programa Orokorriari buruzkoak, azpimarratzen du beharrezkoa dela planetari hartzen duena baino gehiago itzuliko dion ongizate-ekonomia baterantz eboluzionatzea eta ekonomia zirkular ez-toxiko baterantz trantsizioa bizkortzea, non hazkundera birsortzailea izango den, baliabideak modu eraginkor eta jasangarrian erabiliko diren eta hondakinen hierarkia aplikatuko den.

PRIMERO.- La Decisión (UE) 2022/591 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 6 de abril de 2022, relativa al Programa General de Acción de la Unión en materia de Medio Ambiente hasta 2030, incide en la necesidad de evolución hacia una economía del bienestar que devuelva al planeta más de lo que toma de él, y de aceleramiento de la transición hacia una economía circular no tóxica en la que el crecimiento sea regenerativo, los recursos se utilicen de manera eficiente y sostenible, y se aplique la jerarquía de residuos.

Hondakinen arloko estrategiak eta helburuak arautzen dituen Erkidegoko arau-esparrua Hondakinen Esparru Zuzentarauan zentralizatuta dago: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentaraua, 2008ko azaroaren 19koa, hondakinei buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 (EB) Zuzentarauak aldatua, Europar Batasunak ekonomia zirkularri buruz sustatutako neurri-sortaren ildotik.

El marco normativo comunitario que regula las estrategias y objetivos en materia de residuos está centralizado en la Directiva Marco de Residuos: Directiva 2008/98/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de noviembre de 2008, sobre los residuos, modificada por la Directiva (UE) 2018/851 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de mayo de 2018, en línea con el paquete de medidas sobre la economía circular promovido desde la Unión Europea.



Ekonomia zirkularren paketeak helburu zehatz batzuk ezartzen ditu, eta bereziki eragiten du isurketen eremuan (2018/850 Zuzentaraua) eta ontzien eta haien hondakinen esparruan (2018/852 Zuzentaraua), besteak beste.

BIGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiak, udal-hondakinei dagokienez, jasangarritasunera bideratutako kudeaketaren aldeko apustua egiten du. Hala, hondakinak kudeatzeko aukeren hierarkia komunitarioarekin bat, bertan dauden baliabide gehienak aprobetxatu nahi dituzte. Horri jarraiki, lehenasunez prebentzio-jarduketak garatu behar dira, birziklatzeko eta balioa emateko jarduerekin batera eta, azkenik, hondakinen gainerako zatia modu seguruan deuseztatuko da, arriskugarritasuna murriztu ostean.

HIRUGARRENA.- Bi erakundeen iritziz, udal-hondakinak tratatzeko orduan, ingurumenarekiko ondorio negatiboak prebenitu behar dira, baita ingurumena babesteko gehieneko neurriak hartu ere. Hori guztia indarreko araudiaren eskakizunak eta garapen iraunkorraren printzipioak betetzeko egingo da

LAUGARRENA.- Prebentzioaren eta jatorrian minimizazioaren, berrerabileraren sustapenaren, balorizazio material eta energetikoaren eta, azkenik, balorizatu ezin diren hondakinen ezabatze egokiaren printzipioak gauzatzeko helburuarekin, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ezartzen du lurralde historikoetako foru-organismoek honako eskumen hauek izango dituztela, besteak beste: udal-hondakinak kudeatzeko esparru-programazioa garatzea, zerbitzuak emateko udal-jarduerak koordinatzea eta beharrezkoak diren udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzea.

BOSGARRENA.- Hitzarmen hau administrazio artekoa da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 artikuluan ezarritako sailkapenaren ondorioetarako.

SEIGARRENA.- Eskumen horiek egikaritzuz, Bizkaiko Foru Aldundia titular bakarra da edo zuzenbide publiko edo pribatuko beste erakunde batzuekin parte hartzen du hondakinak kudeatzeko honako azpiegitura hauen titulartasunean:

- Hondakinak biltegitratzeko bost transferentzia-estazio: Durango, Gernika, Berriatua, Zalla eta Igorre.

El paquete de economía circular marca unos objetivos concretos e incide de forma específica en el ámbito de los vertidos (Directiva 2018/850) y de los envases y sus residuos (Directiva 2018/852), entre otros.

SEGUNDO.- La Diputación Foral de Bizkaia apuesta por una gestión de los residuos municipales orientada a la sostenibilidad, que intente aprovechar al máximo los recursos contenidos en los mismos, de acuerdo con la jerarquía comunitaria de opciones de gestión de los residuos, según la cual se deben desarrollar prioritariamente acciones de prevención, junto con actuaciones de reciclaje y valorización y, finalmente, operaciones de eliminación segura para la fracción restante de residuos, una vez reducida su peligrosidad.

TERCERO.- Ambas Instituciones entienden que el tratamiento de los residuos municipales debe gestionarse de manera que se prevengan efectos negativos sobre el medio ambiente con los máximos niveles de protección medioambiental que permitan el cumplimiento de las exigencias de la normativa vigente y los principios de desarrollo sostenible.

CUARTO.- Con el fin de hacer efectivos los principios de prevención y minimización en origen, incentivación de la reutilización, valorización material y energética y, finalmente, eliminación adecuada de los residuos que no puedan valorizarse, la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, establece que los Órganos Forales de los Territorios Históricos, tendrán, entre otras, las siguientes competencias: el desarrollo de la programación marco de gestión de residuos municipales, la coordinación de las actuaciones municipales para la prestación de los servicios, y el impulso de las infraestructuras supramunicipales necesarias.

QUINTO.- El presente convenio se define como interadministrativo, a efectos de la clasificación establecida en el art. 47.2 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

SEXTO.- En el ejercicio de estas competencias, la Diputación Foral de Bizkaia es titular único o participa con otras entidades de derecho público o privado en la titularidad de las siguientes infraestructuras de gestión de residuos:

- 5 estaciones de transferencia para el almacenamiento de residuos: Durango, Gernika, Berriatua, Zalla e Igorre.



- 23 garbigune.
- BZBren Amorebieta-Etxanoko instalazioa, ontziak eta ontzi-hondakinak kudeatzeko.
- Bertziklatu Ortuellan, tamaina handiko hondakinak tratatzeko.
- Konpostegia Bilbon, 5. edukiontzitik eta udalerriko inausketa eta lorezaintzatik gaika bildutako zatiki organikoa tratatzeko.
- Zabalgarbi, Bilbon, udal-hondakinen balorizazio energetikorako.
- Tratamendu Mekaniko Biologikoko Instalazioa (TMB) udal-hondakinen tratamendu mekaniko-biologikorako.
- Artigaseko ekoparkea; bertan dago Artigaseko zabortegia.

ZAZPIGARRENA.- Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 10eko 44/1986 Dekretuaren bidez, Garbiker M.P. A.B., S.A. sozietatea sortu zen, Aldundiaren baliabide propio eta kapital publikoko sozietate anonimo gisa. Sozietatearen xedea hondakinak kudeatzea da, eta beraz hitzarmen honen xede diren hondakinak kudeatzea dagokio.

ZORTZIGARRENA.- Urriaren 30eko 192/2007 Foru Dekretuaren bidez, Garbiker SAri baimena eman zitzaion udal-hondakinak tratatzeko zerbitzuaren prezio publikoa kudeatzeko, likidatzeko eta biltzeko.

BEDERATZIGARRENA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoek aukera ematen dute administrazio publikoek beste administrazio publiko batzuekin hitzarmenak sinatu ditzaten, betiere hitzarmena sinatuz kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen bada, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten, erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezkeen laguntzen, eta aurrekontu-egonkortasunerako eta finantza-jasangarritasunerako legeria betetzen.

HAMARGARRENA.- 1998. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, erabilitako ontziak kudeatzeko.

HAMAIKAGARRENA.- 2013ko martxoaren 5ean, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak berrerabil daitezkeen hondakinak tratatzeko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten.

- 23 Garbigunes.
- La planta de BZB en Amorebieta-Etxano, para la gestión de los envases y residuos de envases.
- Bertziklatu en Ortuella. para el tratamiento de los residuos voluminosos.
- Konpostegia en Bilbao para el tratamiento de la fracción orgánica recogida selectivamente procedente del 5º contenedor y las podas y jardinería municipales.
- Zabalgarbi en Bilbao para la valorización energética de los residuos municipales.
- La Planta de Tratamiento Mecánico Biológico (TMB) para el tratamiento mecánico-biológico de los residuos municipales.
- Ekoparque de Artigas, donde se localiza el vertedero de Artigas.

SÉPTIMO.- Por Decreto de la Diputación Foral de Bizkaia número 44/1986, de 10 de abril, se crea la Sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A., medio propio de la Diputación y sociedad anónima de capital público, siendo su objeto social la gestión de los residuos y teniendo encomendada la gestión de los residuos objeto del presente convenio.

OCTAVO.- Mediante Decreto Foral número 192/2007, de 30 de octubre, se autoriza a que la gestión, liquidación y recaudación del precio público por el servicio de tratamiento de residuos municipales sea realizado por Garbiker S.A.

NOVENO.- El artículo 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, establece la posibilidad de que las administraciones públicas puedan establecer convenios con otras administraciones públicas que tengan por objeto mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, contribuir a la realización de actividades de utilidad pública, y cumplir con la legislación de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera.

DÉCIMO.- En el año 1998, la Diputación Foral de Bizkaia y la Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta firmaron un convenio de colaboración para la gestión de envases usados.

UNDÉCIMO.- Con fecha 5 de marzo de 2013, la Diputación Foral de Bizkaia y la Mancomunidad de Servicios de Uribe Kosta firmaron un convenio de colaboración para el tratamiento de la fracción reutilizable.



HAMABIGARRENA.- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea betez, 2020ko ekainaren 16an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lemoizko Udalak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zuten hiri-hondakinak tratatzeko zerbitzua emateko.

HAMAHIRUGARRENA.- Ekimen hau abian jarri beharraz jabetuta, esku-hartzaileek adostu dute hitzarmen hau sinatzea eta deskribatutako zerbitzuaren kudeaketaren lankidetzaz gauzatzeko baldintzak arautzea, betiere honakoak betez:

DUODÉCIMO.- En cumplimiento de la Ley 40/2015, de Régimen Jurídico del Sector Público, con fecha 16 de junio de 2020, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Lemoiz, firmaron un convenio de colaboración para la prestación del servicio de tratamiento de residuos urbanos.

DECIMOTERCERO.- Conscientes los intervinientes de la necesidad de poner en marcha esta iniciativa, acuerdan suscribir el presente convenio para regular las condiciones en las cuales se va a realizar la colaboración en la gestión del servicio descrito, con arreglo a las siguientes:

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

LEHENENGOA.- HELBURUA.

Hitzarmen honen xedea alderdien arteko lankidetzaren baldintzak arautzea da udal-hondakinak tratatzeko zerbitzua emateko. Hala, zerbitzu hori Garbiker M.P. A.B., S.A. sozietatearen bitartez emango dela onartu da.

PRIMERA.- OBJETO.

El objeto del presente convenio es regular las condiciones en las que se va a desarrollar la colaboración entre las partes para la prestación del servicio de tratamiento de los residuos municipales, aceptando que dicho servicio sea prestado a través de la sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A.

Zerbitzu horrek, besteak beste, prestazio hauek biltzen ditu:

- A. Masan bildutako hondakinak tratatzea.
- B. Tamaina handiko hondakinak tratatzea.
- C. Etxeko hondakinaren eta udalak egindako inausketen frakzio organikoa tratatzea.

Este servicio engloba, entre otras, las siguientes prestaciones:

- A. Tratamiento de los residuos recogidos en masa.
- B. Tratamiento de los residuos voluminosos.
- C. Tratamiento de fracción orgánica del residuo doméstico y podas municipales.

BIGARRENA.- ALDEEK BEREN GAIN HARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

1.- Hondakinen tratamendua Bizkaiko Foru Aldundiak egingo du, baina lehenbizi Lemoiz udalerrian bildu behar dira eta hondakinen transferentzia-estaziora edo hondakinak tratatzeko instalaziora garraiatu behar dira, frakzioen arabera egoki diren horietara.

SEGUNDA.- OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDOS POR LAS PARTES.

1.- El tratamiento de los residuos se prestará por la Diputación Foral de Bizkaia, una vez recogidos por el municipio de Lemoiz y realizado su transporte hasta la estación de transferencia o planta de tratamiento de residuos que corresponda, de acuerdo con la naturaleza de las distintas fracciones.

2.- Bizkaiko Foru Aldundiak ingurumenaren aldetik jasagarria eta ekologikoki arduratsua den modu batean tratatuko ditu.

2.- La Diputación Foral de Bizkaia procederá a su tratamiento de una forma medioambientalmente sostenible y ecológicamente responsable.

3.- Bizkaiko Foru Aldundia arduratuko da zerbitzuaren kudeaketa antolatzeaz, eta Garbiker M.P. A.B., S.A. sozietatearen bidez emango du.

3.- La Diputación Foral de Bizkaia será responsable de la organización de la gestión del servicio, que lo prestará a través de la Sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A.



Garbiker M.P. A.B., S.A. sozietateari dagokio lehen aipatutako hondakinak tratatzeari dagokionez eman beharreko zerbitzua arautzea.

4.- Udal-hondakinekin lotutako ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilerari buruz araututakoa betetzeko, Lemoizko Udalak Garbiker M.P. A.B. SA sozietateari emango dio haren ordezkaritza, erakunde kudeatzaile delegatu gisa (EGD), nahitaezkoa den dokumentazio guztia elektronikoki kudeatzeko, unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera, eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean.

5.- Hitzarmen honen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako zerbitzuaren prezioa Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretu bidez zehazten den prezio publikoa izango da. Foru Dekretu horrek uztailaren 11ko 126/2006 Foru Dekretua aldatuko du, hiri-hondakinak behin betiko ezabatzeko zerbitzuaren prezio publikoaren erregulazioa aplikatu eta garatzen duena.

Prezio publikoa kudeatzea, likidatzea eta biltzea Garbiker M.P. A.B., S.A. sozietateari egokituko zaio, urriaren 30eko 192/2007 Foru Dekretuaren 5. artikulua arabera.

Lemoizko Udalak 30 eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, zerbitzua emateagatik faktura jasotzen denetik zenbatzen hasita.

Prezio publiko hori hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko udalak izendatutako enpresa publiko kontratatzaileak ordain dezake, edo bestela, hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua esleituta duen beste figura baliokideren batek ordain dezake.

Udalak izendatutako enpresak edo figura baliokideak klausula honetan ezarritako 30 eguneko epean ordaintzen ez bada, Garbikerrek kobrantza-agiria bidaliko dio Lemoizko Udalari, eta horrek 15 egun izango ditu dagokion zenbatekoa ordaintzeko.

Prezioa ez bada ezarritako epeetan ordaintzen, Lemoizko Udalari kobratuko zaio betearazpen-bidetik.

Halaber, behin eta berriz ordaindu gabe uzten bada, Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena deuseztatu ahal izango du, eta Lemoizko Udalak aurrekontu-esleipena behar besteko aurrerapenez zehaztu beharko du.

Corresponderá a la Sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A. la regulación del servicio a prestar en lo que respecta al tratamiento de los residuos anteriormente citados.

4.- Al objeto de cumplir con lo establecido acerca de la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales relacionados con los residuos municipales, el Ayuntamiento de Lemoiz otorgará su representación a la Sociedad Garbiker MP AB, S. A., en calidad de Entidad Gestora Delegada (EGD), para la tramitación electrónica de toda la documentación que sea preceptiva, según la normativa vigente en cada momento, y por el mismo periodo de vigencia de este convenio.

5.- El precio del Servicio prestado por la Diputación Foral de Bizkaia en virtud del presente convenio será el precio público que se determine mediante Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se modifique el Decreto Foral 126/2006, de 11 de julio, por el que se acuerda la aplicación y se desarrolla la regulación del precio público por el servicio de tratamiento de residuos urbanos para su eliminación definitiva.

La gestión, liquidación y recaudación del precio público lo realizará la Sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A. de conformidad con lo dispuesto en el art. 5 del Decreto Foral 192/2007, de 30 de octubre.

El precio deberá ser abonado por el Ayuntamiento de Lemoiz en el plazo de 30 días contados a partir de la recepción de la factura emitida por la prestación del servicio.

Se faculta para que el abono de dicho precio público sea realizado por la empresa pública contratante del servicio de recogida y transporte de residuos que el ayuntamiento designe o figura equivalente que tenga atribuida la prestación del servicio de recogida y transporte de residuos.

En caso de impago por parte de la empresa o figura equivalente designada por el ayuntamiento en el plazo de 30 días recogido en la presente cláusula, Garbiker enviará el documento de cobro al Ayuntamiento de Lemoiz y éste deberá abonar el importe correspondiente en un plazo de 15 días.

El incumplimiento del pago del precio en los plazos señalados dará lugar al cobro del mismo a través de la vía ejecutiva al Ayuntamiento de Lemoiz.

Asimismo, si el impago es reiterado, podrá dar lugar a la rescisión del convenio por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, siendo de cuenta del Ayuntamiento de Lemoiz fijar con suficiente antelación la consignación presupuestaria precisa.



HIRUGARRENA.- ALDEEK HITZARTURIKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAGATIKO ONDORIOAK.

Hitzarmen hau sinatzeak ez du esan nahi sinatzen duten alderdiek esleituta dituzten eskumenei uko egingo zaienik, ez eta horiek aldatuko direnik ere; izan ere, alderdi horiek hitzarmenaren ondorioz hartzen dituzten konpromisoei datzekien erantzukizunak soilik hartuko dituzte beren gain.

1.- Hitzarmen honen babesean sinatzaileek onartutako betebeharrak, bai eta hitzarmena garatzeko eta egikaritzeko hartutako erabakiak ere larriki betetzen ez badituzte edo ez-betetze horiek behin eta berriz errepikatzen badira, kaltetuak hitzarmena aurretiaz suntsiarazteko ahalmena izango du, eta betetzen ez duenak kalte-ordaina eman beharko dio suntsiarazpenaren ondorioz sortutako kalte-galerak direla eta. Bestela, kaltetutako alderdiak berak urratutako betebeharrak betearazteko eska dezake, modu berean, kalte-galerengatik kalte-galera jasota.

2.- Alderdiek berariaz hitzartu dute hitzarmen honetan onartutako betebeharrak ez betetzetik erator daitezkeen kalte-galerek barne hartuko dutela, edozein kasutan eta mugarik gabe, ez-betetzea gertatu zen egunetik sortutako interesen ordainketa (diruaren hileko legezko interes-tasaren arabera kalkulatuta), eta horretarako ez da errekerimendurik edo intimaziorik egin beharko.

LAUGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Jarraipen Batzorde bat eratuko da hitzarmen honetan jaso ez diren eta etorkizunean sor daitezkeen arazoak konpontzeko (udal-hondakinen frakzio berriak sartzea, zerbitzuaren maiztasuna, etab.), alderdi sinatzaileen arteko lankidetzak bideratzeko, hitzarmena interpretatzetik sor daitezkeen arazoak konpontzeko, hitzarmenaren jarraipena eta kontrola egiteko eta hitzarmenean hartutako konpromisoak betetzeko.

Dokumentu honetan aipatzen diren erakundeen ordezkari bina egongo dira batzorde horretan.

TERCERA.- CONSECUENCIAS DE LOS INCUMPLIMIENTOS DE LAS OBLIGACIONES Y COMPROMISOS ASUMIDAS POR LAS PARTES.

La firma del presente convenio no implica renuncia ni alteración de las competencias que tienen atribuidas las partes que lo suscriben, las cuales asumirán exclusivamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que se derivan del mismo.

1.- El incumplimiento grave o reiterado por parte de los firmantes de las obligaciones asumidas al amparo de lo establecido en este convenio, así como de los acuerdos adoptados en el desarrollo y la ejecución del mismo, facultará al perjudicado a resolver anticipadamente el mismo, con la consiguiente obligación del incumplidor de indemnizar por los daños y perjuicios que se derivasen de tal resolución o, a opción de la otra parte, a exigir el cumplimiento de las obligaciones quebrantadas, asimismo con la correspondiente indemnización de daños y perjuicios.

2.- Las partes expresamente estipulan que los daños y perjuicios que pudieran derivarse de cualquier incumplimiento de las obligaciones asumidas en el presente convenio incluirán, en cualquier caso y sin carácter limitativo, el pago de los intereses calculados al tipo de interés legal del dinero con carácter mensual, que se devenguen desde la fecha en que se produjo el incumplimiento, sin que para ello sea necesario requerimiento ni intimación alguna.

CUARTA.- COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.

Se constituirá una Comisión de Seguimiento para solventar las cuestiones no recogidas en el presente convenio y que pudieran surgir en el futuro (inclusión de nuevas fracciones de residuos municipales, frecuencia de servicio, etc.), para la colaboración entre las partes firmantes, para la resolución de los problemas de interpretación del presente convenio, para el seguimiento y control de su ejecución, y para el cumplimiento de los compromisos adquiridos en él.

En la misma participarán dos representantes de cada una de las dos entidades representadas en este documento.



Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritzako titularrak eta Garbiker M.P. A.B., S.A. sozietateko gerentziako titularrak osatuko dute. Batzorde hori behar beste aldiz bilduko da, alderdietako edozeinek hala eskatuta.

BOSGARRENA.- HITZARMENAREN KOORDINAZIOA, INFORMAZIOA, GARAPENA ETA GAUZATZEA.

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Lemoizko Udalak konpromisoa hartzen dute, eska dakiekeen arduraz, bakoitzari dagokion zerbitzuaren zatia gauzatzeko. Aldeen arteko harremanetan koordinazio-printzipioa lehenetsiko dute, zerbitzuaren garapena ondo joateko.

Hitzarmen honen esparruan, hondakinen kudeaketan elkarrekiko informazio-fluxua egongo da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Udal Hondakinen Behatokiaren bitartez. Bi aldeek euren esku dituzten datuak eta estatistikak emango dizkiote elkarri, ingurumenari buruzko informazioa errazago lortzeko; sentsibilizazio-lanak eta herritarren parte-hartze aktiboa eta eraginkorra lortzera bideratutako hedatze-lan guztiak egingo dituzte, garapen jasangarriko eredu baterantz aurrera egiteko.

SEIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA

Hitzarmen honek lau urte iraungo du, Foru Diputatuak sinatzen duen egunetik zenbatzen hasita, oinarri duen hondakinak kudeatzeko eredu indarrean dagoen bitartean.

Aurrez ezarritako epea amaitu aurreko edozein unetan, sinatzaileek hitzarmena lau urtez luzatzeko erabakia har dezakete, aho batez.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENA ALDATZEA.

Hitzarmen hau aldatu ahal izateko alderdiak ados jarri beharko dira.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA.

Hitzarmen hau honako arrazoi hauengatik azkenduko da:

- Hitzarmenaren xede diren jarduketak betetzea.
- Indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzea adostu gabe.

Estará integrada, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, por el/la titular de la Dirección de Medio Ambiente, y la persona titular de la Gerencia Sociedad Garbiker M.P. A.B., S.A. Dicha Comisión se reunirá cuantas veces resulte preciso a requerimiento de cualquiera de las partes.

QUINTA.- COORDINACIÓN, INFORMACIÓN, DESARROLLO Y EJECUCIÓN DEL CONVENIO.

La Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Lemoiz se comprometen a llevar a cabo, con la diligencia exigible, la parte que respectivamente les corresponde del servicio, primando en las relaciones entre las partes el principio de coordinación para una buena marcha del mismo.

En el marco de este convenio existirá un flujo de información recíproca generada en la gestión de los residuos a través del Observatorio de residuos municipales del Territorio Histórico de Bizkaia. Ambas partes se aportarán los datos y estadísticas que obren en su poder para facilitar el acceso a la información ambiental; las labores de sensibilización, y todas aquellas labores de difusión encaminadas a una participación activa y efectiva de la ciudadanía para avanzar en un modelo de desarrollo sostenible.

SEXTA.- PLAZO DE VIGENCIA DEL CONVENIO.

El presente Convenio tendrá un plazo de duración de cuatro años contados a partir de la fecha de la firma de la Diputada Foral, mientras se mantenga el modelo de gestión de residuos que lo sustenta.

En cualquier momento antes de la finalización del plazo previsto anteriormente, los firmantes podrán acordar unánimemente una prórroga de hasta cuatro años adicionales.

SÉPTIMA.- MODIFICACIÓN DEL CONVENIO.

El presente convenio podrá ser modificado por acuerdo de las partes.

OCTAVA.- EXTINCIÓN DEL CONVENIO.

El presente convenio se extinguirá por las siguientes causas:

- Cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto.
- Por el transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.



- Sinatzaile guztien ahobatezko erabakia.
- Aldeetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.
- Epaile batek erabakitzea hitzarmena deuseza dela.
- Hondakinak kudeatzeko foru-eredua aldatzeagatik.
- Legeetan ezarritako beste edozein arrazoiengatik.
- El acuerdo unánime de todos los firmantes.
- El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.
- Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- Por cambio en el modelo foral de gestión de residuos.
- Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

BEDERATZIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESA.

Hitzarmen honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudia 2016/679 (EB) Erregelamendua da, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Hitzarmen hau sinatzen den unean eskuragarri dagoen informazioaren arabera ez da aurreikusten hitzarmenaren parte hartzen duten erakundeek hitzarmen honen prestazioak eta betebeharrak egikaritzetik erortzen diren datu pertsonalak tratatuko dituztenik. Baldin eta egikaritu bitartean datu pertsonalak tratatzen badira, aurretik, berariaz eta idatziz ezarri beharko dira aplikatuko den datu pertsonalen babesari buruzko araubide juridikoa arautuko duten jarraibideak, dagokion egintza juridikoaren bidez.

Alabaina, hitzarmena idatzi, sinatu eta ondoren hura zaintzeak hauxe ekarriko du: erakunde bakoitzaren ordezkari gisa jarduten duten eta hitzarmena sinatzen duten pertsonen identifikazio-datu pertsonalak tratatzeko erantzukizuna hitzarmenaren parte hartzen duen eta hura sinatzen duen erakunde bakoitzak izango du; horrenbestez, jarraian ezarritako betebeharrak jarraikiz tratatuko dira (alde guztiei aplikatuko zaizkie, tratamendu-arduradun diren aldetik):

- I. Datu pertsonalen tratamendu-jarduerak baimentzea.
- II. Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela aurretiaz zaindu, tratamenduak dirauen artean kontrolatu eta tratamenduaren ostean ikuskatzea.
- III. Araudiari jarraikiz, datuak tratatzeko egin beharreko eragiketetan datu pertsonalak babesteko ikuskapenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluazioak egitea.

NOVENA.- PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

La normativa aplicable al presente convenio en materia de protección de datos personales es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales, y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

A la firma del presente convenio no se prevé con la información disponible que las Entidades Firmantes vayan a llevar a cabo un tratamiento de datos personales derivado de la ejecución de las prestaciones y obligaciones del presente convenio. En el supuesto de que durante su ejecución tuviera lugar tratamiento de datos personales se debe de manera previa, expresa y por escrito, establecer mediante el correspondiente acto jurídico las instrucciones que regulen el régimen jurídico de protección de datos personales aplicable.

No obstante, la redacción, firma y posterior custodia del convenio supone que los datos personales identificativos de las personas que representan a cada entidad y que suscriben el convenio son responsabilidad de tratamiento de cada entidad que suscribe y participa en el convenio y serán tratados conforme a las siguientes obligaciones, aplicables a cada una de las partes en calidad de responsables de tratamiento:

- I. Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales.
- II. Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.
- III. Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.



- | | |
|--|--|
| <p>IV. Kasu bakoitzean dagozkion alde zurrerko kontsultak egitea.</p> <p>V. Datu pertsonalak tratatzea DBAOren 32. artikulua ezarritako segurtasun-irizpideen eta bertako edukiaren arabera, eta behar diren neurri tekniko eta segurtasun- zein antolaketa-neurri guztiak hartzea eskuratzeko modua duen datu pertsonal guztien konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko. Zehatzago esanda, neurri horiek guztiek bat etorri behar dute informazio-sistemen kategorizazio- eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen 311/2022 Errege Dekretuak xedatzen dituenen arabera.</p> <p>VI. Hitzarmena egikartzeko erabil daitezkeen datu pertsonalen eta tratamenduaren ondorioz eskuratutako inguruan erabateko konfidentzialtasuna mantentzea, eskuratzeko erabili den euskarria gorabehera.</p> <p>VII. Betebehar hori lotzen zaio BFAren eta Lemoizko Udalaren tratamenduaren edozein fasetan parte hartzen duen pertsona orori eta, horrenbestez, entitate horiek prestakuntza eskaini behar diete bere menpeko pertsoneri sekretua gorde beharreko betebeharrari buruz. Halaber, jakinarazi behar die konfidentzialtasuna gorde behar dutela jarduera amaitutakoan edo jarduera horretatik banandutakoan ere.</p> <p>VIII. Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda kudeatzea eta pertsona horiek guztiek, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna gordetzeko eta segurtasun-neurri egokiak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Ildo horretan, segurtasun-neurrien berri behar bezala jakinarazi behar zaie.</p> <p>IX. Tratamendurako baimendutako pertsonen datu pertsonalak babesteko behar duten prestakuntza bermatzea.</p> <p>X. Datu pertsonalak hirugarrenei ez komunikatzea (lagatzea) edo zabaltzea, ezta datuak gordetzeko ere, legez baimendutako kasuetan izan ezik.</p> | <p>IV. Realizar las consultas previas que, en su caso, correspondan.</p> <p>V. Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se correspondería con la categorización de los sistemas de información y la aplicación de medidas de seguridad según el Real Decreto 311/2022, que regula el Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.</p> <p>VI. Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales que puedan tener que utilizar para la ejecución del convenio, así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.</p> <p>VII. Esta obligación se extiende a toda persona que pudiera intervenir en cualquier fase del tratamiento por cuenta de DFB y del Ayuntamiento de Lemoiz siendo asimismo deber de las entidades instruir a las personas que estén bajo su dependencia orgánica y/o funcional, acerca del deber de secreto y del mantenimiento de dicho deber, aún después de la terminación de la prestación de la actividad o de su desvinculación.</p> <p>VIII. Llevar un listado de personas autorizadas para tratar los datos personales y garantizar que las mismas se comprometen, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad, y a cumplir con las medidas de seguridad correspondientes, de las que se les debe informar convenientemente.</p> <p>IX. Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.</p> <p>X. No comunicar (ceder) ni difundir los datos personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación, salvo en supuestos legalmente habilitados.</p> |
|--|--|



- XI.** Behar denean, tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak babesteko izendatutako pertsona fisikoak nortzuk diren eta beren harremanetarako datuak jakinaraztea, hau da, nortzuk izango diren datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa legeari, formari eta segurtasunari dagokienez betetzeko ardura duten pertsonak.
- XII.** DBEOren 33.artikuluarekin bat etorritik, bere erantzukizun-eremuan eta, beharrezkoa bada, kontrol-agintaritzaren eskudunari berehala, eta gehienez jota 72 orduko epearen barruan, jakinaraziko dio bere erantzukizunpean dauden eta jakin izan dituen datu pertsonalen gaineko segurtasunaren edozein urraketa, informazioa tratatzeko eta kudeatzeko bere sisteman izandako gorabehera edo edozein akats dokumentatzeko eta komunikatzeko informazio garrantzitsuarekin batera, hain zuzen datu pertsonalen segurtasuna, horien osotasuna edo baliagarritasuna arriskuan jar dezaketen edo jakin izan duten informazioarekin batera. Horrez gain, dagokion negozio juridikoa egikaritzean lorturiko datuak eta argibideak beste batzuei jakinaraztearen ondoriozko konfidentzialtasunaren balizko edozein urraketa ere jakinarazi beharra dago. Horren inguruko informazio zehatza berehala jakinaraziko da; halaber, adieraziko da zeintzuk diren konfidentzialtasuna galdu duten interesdunak.
- XIII.** Indarreko araudiak ezarritakoari jarraikiz jardungo da pertsona fisiko batek datu pertsonalen babesaren alorrean eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatze eta aurkaratzeko eskubideak; tratamendua mugatzeko; banakako erabaki automatizaturik ez izateko; eta aplikatu beharreko araudiak aintzatetsitako beste batzuk).
- XIV.** Honako arlo hauetako betebeharrak beteko ditu: segurtasun-neurriak; agintari eskudunei edo interesdunei egindako segurtasun-neurrien urraketa gaineko (lortu direnen eta lortzen saiatu direnen gaineko) komunikazioa eta/edo jakinarazpena; eta, hala badagokio, beharrezkoak diren eragin-ebaluazioak egitea.
- XV.** Eginiko tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa egingo da, idatziz, formatu elektronikoa eta DBEOren 30.2. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Gutxienez artikulua horretan aipaturiko inguruabarrak bilduko ditu erregistroak. Horrenbestez, erregistroan honako informazio hau bildu behar da:
- XI.** En su caso, comunicar la identidad y datos de contacto de las personas físicas designadas por el responsable del tratamiento a efectos de protección de los datos personales, esto es, la identidad de las personas responsables del cumplimiento de la regulación del tratamiento de datos de carácter personal, en las vertientes legales/formales y en las de seguridad.
- XII.** De conformidad con el artículo 33 RGPD, comunicará en su respectivo ámbito de responsabilidad y, en caso de ser necesario, a la autoridad de control competente de forma inmediata y, a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tenga conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del negocio jurídico correspondiente. Comunicará con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.
- XIII.** Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).
- XIV.** Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.
- XV.** Llevar, por escrito, incluso en formato electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo. En este sentido, este registro contendrá la siguiente información:



- Hitzarmena egin den pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta harremanetarako datuak.
- Egindako tratamenduaren kategoriak.
- Segurtasun-arloko neurri tekniko eta antolaketa-neurrien azalpena, eta horien aplikazioa bidezkoa bada, alderdi hauen ingurukoak:
 - Seudonimizazioa eta datu pertsonalen zifratua.
 - Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.
 - Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak azkar eskuratu eta jasotzeko gaitasuna eraberritzea.
 - Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoen eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu ohikoa.
- Nombre y datos de contacto de la persona física o jurídica con la que se realice el convenio.
- Categorías de tratamientos efectuados.
- Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:
 - Seudonimización y el cifrado de datos personales.
 - La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.
 - La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.
 - El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

- XVI.** Datu pertsonalen babesaren inguruko araudia eta ardura aktiboaren betebeharrak betetzen direlako ebidentziak izatea.
- XVII.** Informaziorako eskubidea: Bi erakundeek, datuak jasotzeko unean, datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dute.
- XVIII.** Klausula hau eta bertan ezarritako betebeharrak hitzarmen honen inguruan datu pertsonalen tratamendua arautzen duten egintza juridikoa dira. Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak ezin dira ordaindu hitzarmen honetan ezarritakoa ez beste modu batean, ez eta hitzarmen honetan ezarritakoaren osagarri moduan ere, eta hitzarmen honen xede den prestazioaren iraupen bera izango dute eta, behar denean, hitzarmenaren iraupen bereko aldietarako luzatuko dira. Alabaina, hitzarmena bukatutakoan, indarrean jarraituko du informazioa isilpean gordetzeko betebeharrak, denbora-mugarik gabe, prestazioa egikaritzen parte hartzen duten pertsona guztientzat.
- XIX.** Hitzarmena formalizatu ondoren eta egikaritu bitartean bertan hitzartutakoa aldatu edo egokitu behar bada, bi entitateek adieraziko dituzte zeintzuk diren aldatu edo egokitu beharreko aldaketak. Bi erakundeak eskatutakoarekin ados badaude, dokumentu eguneratua egingo da, tratamenduaren xehetasuna zehatz-mehatz jasota.
- XVI.** Disponer de evidencias que demuestren el cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad activa.
- XVII.** Derecho de información: Ambas entidades en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.
- XVIII.** La presente cláusula y las obligaciones aquí establecidas constituyen el acto jurídico que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente convenio. Las obligaciones y prestaciones que aquí se recogen no podrán ser retribuidas de forma distinta u adicional a lo previsto en este convenio y tendrán la misma duración que la prestación de objeto de este convenio, prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas involucradas en la ejecución de la prestación.
- XIX.** Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el mismo, ambas entidades señalarán los cambios que solicitan modificar u adaptar. En caso de que ambas entidades estén de acuerdo con lo solicitado, se emitirá un documento actualizado que recoja fielmente el detalle del tratamiento.



HAMARGARRENA.- JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Hitzarmen hau juridiko-administratiboa da. Hitzarmen honetatik sortutako auzigaiak alderdien adostasunez ebatziko dira.

Hitzarmen hau interpretatu, aldatu edo azkentzean edo ondorioak izatean sortu ahal diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira, jurisdikzio-ordena hori arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

Hitzarmenak BFaren 169/2014 Foru Dekretuak, Bizkaiko lurralde historikoko aurrekontuei buruzko araudi orokorra onetsi eta aurrekontuaren arau orokorrari dagokion testu bateratua garatzen duenak, 45 bis artikuluan xedatutako baldintzak betetzen ditu.

Hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen da. Hala, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoak arautuko du.

Hori hitzartu dute alderdiek ekitaldi honetan, eta adierazitakoarekin ados daudela adierazteko, hitzarmen hau sinatu dute sinaduran adierazitako tokian eta egunean.

INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA
SUSTATZEKO FORU DIPUTATUA
DIPUTADA FORAL DE MEDIO NATURAL Y
AGRICULTURA

Sin./Fdo.: Arantzazu Atucha Lejarreta

DÉCIMA.- JURISDICCIÓN COMPETENTE.

El presente convenio tiene naturaleza jurídica administrativa. Las cuestiones litigiosas que surjan del presente convenio serán resueltas de común acuerdo por las partes.

Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del presente convenio serán de conocimiento y competencia del Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo, a tenor de lo establecido en la Ley 29 de 13 de julio de 1998, reguladora de tal Orden Jurisdiccional.

El convenio cumple con los requisitos establecidos en el artículo 45 bis del Decreto Foral de la DFB 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia, de desarrollo del texto refundido de la Norma Foral-General Presupuestaria.

El presente convenio está excluido del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, rigiéndose por lo estipulado en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Así lo acuerdan las partes en el presente acto y, en prueba de conformidad con lo acordado, firman el presente convenio en el lugar y fecha señalados en la firma.

LEMOIZKO UDALEKO ALKATEA
ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE LEMOIZ

Sin./Fdo.: Jesús María Arizmendi Bastarrika